

NIK GERRA ZIBILA ESPERO DUT

Bajo el temor y el temblor que revela este artículo, se afirma una dramática convicción: Nuestro pueblo está abocado a la guerra civil. Es un grito casi desesperado, porque la esperanza se ha vuelto temor. Las últimas medidas represivas del gobierno central en el País Vasco (con la implicación directa del ejército), la situación de acorralamiento del PNV y su corrimiento hacia Madrid, la dinámica de provocaciones y desafíos entre las fuerzas contrapuestas de nuestro pueblo nos van a abocar al enfrentamiento total de la guerra civil.

... Con todo el autor quiere esperar contra toda esperanza.

Este artículo ha sido publicado en HERRIA-2000-ELIZA. Su contenido ha levantado un gran revuelo, quizás porque expresa la preocupación y la angustia de otros muchos.

Hay quien ha pedido que se publique en su traducción castellana. El autor ha querido mantenerlo en euskera. Y nosotros lo ofrecemos a nuestros lectores con esta breve introducción, porque también nosotros "queremos esperar contra toda esperanza".

Sentitzen dut holaxe esan beharra: nik beltz ikusten dut etorkizuna. Eta gure arazoan Armada eta Marina bera konplikatatu direlarik, lege absurduenak ere asmatan hartu (aprobatu egingo direla ematen du), etab., Estatua bere karga guztiarekin gure gain itzuli, eta orai denok atzera gabeko bidean sartu garela iruditzen zait. Pasa dugu Rubikoia. Honez gero alferrik izango da elkarrizketarik eta aipatzea. Armadak ez dira izaten ohi gizartearen, Estatuaren, tratuetarako eta dialogorako tresnak. Zanpatzeko eta menderatzeko tresnak dira. Orai garbi dago: ez trataturik eta ez dialogorik egongo da "terroristekin" (operazio honek ere frakasatu arte bederen). Orai "victoria o muerte" k agintzen du alde batetan eta "iraultza ala hil" bestean. Odola eta sua.

Hortik soluziorik ez dagoela, uste duen ni bezalako batentzat, zer espero dudan, galderak, zeren beldur naizen, esan nahi du.

Madrid/ETA: orai arteko gerra bera, baina okerrago

Beharbada ETA desegin liteke organizazio bezala. Madrilen hori pentsatzen dute nonbait eta hortik espero dute soluzioa. (Madril esanez Gobernuak esan nahi dut, baina baita beste Alderdi estatalak eta Madrilgo prentsa ere, denak hortik ari dait dira azken boladan). Euskal Herrian,



Joxe Azurmendi, idazlan honen egilea: "Neretzat itxaro dudanaren arazoa, beldur dudanaren arazo bihurtu da".

lehenengo, ez da asko sinesten, azken neurriok ETA desegitea lehenagokoek baino gehiago lortu dutenik eta, bigarren, ETA momentu batez deseginda ere, soluzioa hori denik apenas inork uste du.

Metodo hauek lehen ere aski erabili dira eta begira zer fruitu eman duten. Bakea ez behintzat. ETArek eta haren inguruko fenomeno politikoaren base soziala orai-

koan ere ez da tiroka desegingo, hori seguru dago. Lemoiz dago, langabezia dago, Nafarroaren arazoa dago, euskararen agonia dago, Estatutuaren (edo faltaren) desengainua dago... presoak, torturak, kontrolak, etxean gaberdiko okupazioak inoren bila (egunak ez bait du beste ordurik), atentatuak, BVE... Gauza gehiegi dago.

Azken urteotan "ETA fenomenoaren" rekin ezer gertatu bada, geroz eta sare konplikatua eta osoagoa bihurtu izatea da: orai badiu sustraiak, ez antifrankismoan eta abertsaletasun radikalean bakarrik, baina baita borroka sozialean ere, kulturean, ekologikoan, feministan, droga arazoan, etab. ETA zabaldu egin da. Eta badiudi hemendik aurrera demokraziaren defentsa bera, prentsa libertatearen defentsa esate baterako, etab., asumituz joango dela, geroz eta kanpo gehiagotan sustraiak boteaz, Kapital politikoa irabaziaz. Politika desastroso bati eskerrak, ETAK geroz eta kanpo sozial gehiago okupatzen du. "ETA fenomenoaren" geroz eta konplejoagoa eta zabalagoa da egunetik egunera, presentzia sozial geroz eta gehiago okupatzen du Euskal Herrian. Bere legitimazioa, galdu ordez, haunditu egiten du.

Hori dena, Madril beti enpeinaturik zebilen artean, inori ez beste alternatibarik uzteko, edo berarekin ETArekin kontra edo ETArekin Madrilen kontra. Eta operazio horrek ez du hemen batere ondo funtzionatzen. Bide horixe hartzen da berriro, ordea. Tejerazoaren ondoko neurriek nik ez dut uste desarroilo hau moztuko dutenik. Alderantziz uste dut. Beraz, uste dut Madrilek, bere interesen aldetik ere, gaizki jokatzen duela (nola eta nahi duena ez den gerra zibil bat geure artean probokatzeari). Baina "paganoak" beti ere gu izango gara. Eta egun beltzak ikusi beharko ditugu.

Betiko gerraz gainera gerra zibila

Tejerazoari erantzun egin behar zitzaion, bai. Baina nik ez dut uste erantzunak berdin-berdina izatea zeukanik. Madrilen eta Donostian, esaterako. Halere gurutzada santu bat predikatzen da berriro tejerazoaren graziaz "por tolo lo ancho de la piel del toro", demokraziaren alde eta Konstituzioaren alde, Estatuaren alde eta Espainiaren batasun biolaezinaren alde. Eta guzti-guztiek enplegatu beharra daukate Gurutzada honetan. Edo nirekin edo

nire kontra. Koru bat eta denak ahobatez. UCD baino irtenago PSOE. Fraga bera baino patriotago Carrillo. Meritoak egin beharra bait dago eta agudo gainera. Beste guztiei ere suhar berdina esijitzen zaie, Euskal Herriko Alderdiei bereziki, nahiz eta problema horiek hemen, sentitu bai, baina oso beste modu batetan sentitzen diren. Ez da onartzen diferentziarik.

Zer egin behar dute, demokrazia hau beren demokrazia ote den, eta Konstituzio hau beren Konstituzioa ote den, eta batasun biolaezinezko aberri hau beren aberria ote den, agian orai arte oso garbi-garbi jakiteko modurik ere izan ez duten PNV, EE eta Alderdi horiek? Problema haundiena PNVerena da. "Anbiguitateak" utzi eta "uniformatzeko" eskatzen zaio.



Ez dut inondik ikusten, bakezko irtenbiderik eskain dezakeen sozial-indarrik.

Zer egingo du PNVec? Parte hartu beharko ote du Rinascita patriotiko horretan? Eta egiten ez badu, nola defendatuko ditu —guztien kontra— eta desarroilatuko ditu —guztien kontra— instituzioak, dena eskatu behar diona eta ezer eman behar diona beti Madril izanik? Ez dakit. Ni neuz ez naiz politikoa eta Alderdietatik eta Alderdiekin barruko informazio kanaletatik urrun nago aspaldi. Baina Madril/ETA konfrontazioan nik uste dut bistan dagoela Madril (Gobernua, Alderdiak, prentsa) presio ikaragarria egiten ari dela PNV bere gurdian sarrarazteko eta presio hau geroz eta gogorragoa izango dela. Gurdi hori,

ordea, tanketa bat da orai. Zer gertatuko da, PNVEk, nik behintzat ezertarako on ikusten ez ditudan azken neurriak, apoiatu behar izaten baditu? (Behar, esaten dut). Bestela ere, aspaldion oso situazio zailean egon da PNV, suaren eta ezpataren artean, ETA batetik, eta Madril bestetik. Beharbada ez da Madrilen esku eroriko. Baina gauzek horrela jarraitzen badute, alde bietatik presioekin, ritmoa herri honetan ezartzen dutenak bi haiek izango dira, PNVEk honi edo hari erreazioan, ez bere akzioan, ibili beharko du beti. Eta horrela ezingo du bere programa desarroilatu gizarte hau berregiteko. Eta, azkenean, antzu eta desbordatuta aurkituko da bere politikan... Independentzia zaila PNVEk pretenitzen zuena. Oraikoan batez ere Madril ez da geratuko PNV derrigor bere aldera makurtzeko eginahalak egin gabe. Eta badirudi dagoeneko, lehen zuen "bai batzuen eta bai besteen kontra" postura "anbiguo" hura azken honetan eboluzionatuz joan dela, "batzuen kontra" geroz eta tenteago jarriaz eta "besteen kontra" oso bigun-bigun bakarrik, H.d., PNV Madril aldera bildu dela. Eta horrek, segitzekotan, zer dakarren, geroak bakarrik esango digu.

Ni beldur naiz, PNV hortik badihoa (eta ez dakit beste irtenbiderik ba ote duen), autonomia xuri honen prezioa gerra zibil beltza izango dela eta pagatu ere laster beharko dugula pagatu. Eta hori, Madril-ETA konfrontazioa baino besterik izango da.

Euskal gizartearen bipolaraketa

Gerra zibila esaten dudanean zehatz gerra zibila esan nahi dut, beste ezer ez. Gerra zibila euskaldunon artean, metaforarik eta figura literariorik gabe eta orai artean zegoen gerraz gainera. Odolez eta hildakoz. Honez gero ate aurrean entzuten ditugun burrunbak gerra zibilekoak dira. Eta ordua da galdetzen hasteko, ebizatzerik badago, zer egin behar den ebizatzeke.

Sentitzen dut, honetan ere nik nahiko beltz ikusten dut. Tejerazoa eta azkeneko neurriak probokaten ari diren euskal gizartearen erdibiketara, lehendik zetorren etorri, orai radikalduta egin bada ere. Politikoen deklarazioetan, egunoroko prentsan, profesore jaunen eta jaun itelektualen interbentzioetan, kazetetako polemiketan

(arazo pribatuenak ere barkatu gabe), probokazioen eskalada beldurgarri bat elkarren kontra desarroilatu da gure artean, gorrotozko biolentzi klima itsu bat sortuz, izpirituak apropos gerra zibil batetarako prestatzen ari bagina bezalaxe. Etengabeko elkarren salaketaz eta desafioz. Hitz biolentotan bakarrik ere ez gara geratu. Eta kurioa da: hasieran radikalen eta moderatuen kontrastapena bazirudin, azkeneko denak berdina agertu dira. Radikalek radikologotuz bukatu dute eta moderatuak ere moderazioaren estremismo amorratu bitxi batetan eroriaz, liberalismo izpirik ere gabe, edozein radikalismo zakarraren agresibitate berdinez eta berdin intolerante. Xuriak eta gorriak, alde haundirik apenas geratu da. Denak dabilta sua dariela.

Bakezaleek, ordea, frakasatu egin dutela, esango nuke. Nahiago nuke nik ere sinestu "bakea oraino posible dela Euskadin". Baina ez dut ikusten nola izan behar duen posible, ia denak enpeinatuta badabilta inpossible izan dadin. Daramagun dinamikak gerrara bagaramatza, beste irtenbide bat ireki lezakeen indar sozialik ez dut nik inon somatzen (Eliza, intelektualak, Alderdiaren bat, erresistentzia zibila, edozer gauza). Nik ez dut ikusten.

Aspaldi da Euskal Herrian holakoak aipatzen direla. ETA sortu zenean bertan Gandhi asko aipatzen zen Euskal Herrian. Ez da aspaldi PNVEk berak erresistentzia zibila ahotan zerabilela. Orai ez du gehiago aipatzen. Zerbaitegatik ere, inoiz ez da posible izan projektuok erreallitate bihurtzea. Agian gaur ez da oraino beranduegi. Baina niri zail egiten zait sinestea, orai artean ezin izan duguna orai hobeto egin dezakegunik, baldinkizun are txarragoetan.

Biharkoak biharko utzita, orai tokatzen dena, orai zerbait egitea da. Alegia, orai tokatzen dena, bakea nola den posible bilatzea izango litzateke, itxaropen ororen kontra halere itxaroten saiatuz. Edo, behintzat, zeregin litekeen pentsatzea, gerra honek denok kiskal ez gaitzan erremedio gabe. Haragian hala izpirituan. Nik ez dakit. Eta harritzen nauena da, horrela egon, eta halere inork ez dirudiela egiaz bakegatik oso preokupatuta, kontrarioari metroz-metro eta putadaz-putada terrenoa jategatik baino. Beharbada gerra iadanik hasia delako.

Joxe Azurmendi